

Zarauzko Photo-museumak Iban Gorriti (Durango, 1970) kazetari eta idazlearen –hemendik aurrera argazkilari bezala ere ezagutuko dugu– “Essaouira - Haize Uria” erakusketa aukeratu du aurtengo programazioari hasiera emateko. Komunikatzaile bizkaitarrak azken bi hamarkadetan Marokora egindako bidaietan ateratako argazkiz osatuta dago urtarri-laren 16an ireki zen eta otsailaren 18ra arte ikusgai egongo den erakusketa.

Gorritiri kosta egiten zaio bere burua argazkilaritzat aurkeztea, eta erakusketa hau gehiago ulertzen du Marokon ezagutu dituen pertsona eta leku bereziei egindako omenaldi bezala. Afrikako herrialdearekin duen harreman berezi hori noiz eta nola sortu zen azaltzeko eskatu diogunean, pasioz gogoratu du lehen bi-daia hura.

«2000. urtean, kuadrillako lagun batek, Natalia Guerrak, esan zidan Durangoko Tabira Mendizale Elkartearekin zihoala Toubkal mendia igo-tzera. Afrika iparraldeko altue-na zela, 4.165 metro, eta ea zer-gatik ez nintzen animatzen ni ere joatera. Niri, printzipioz, Marokok ez ninduen askorik erakartzen, baina baietz esan nion. Joan ginen, eta Maroko zapaldu genuenetik gustatu egin zitzaidan han ikusitakoa. Abegikortasun handia, pertso-na oso goxoak, jende irekia hasieratik kanpotarrekiko... Bi-daia hartan mendian ibili gi-nen, baina desertua ere bisita-tu genuen eta kostaldera ere gerturatu ginen, Essaouirara» oroitu du.

Bidaia hartako anekdota bat ere kontatu digu: «Alex Txi-



Sergio QUERO

«Maroko lehen aldiz zapaldu nuenetik, gustatu egin zitzaidan han ikusitakoa»

IBAN GORRITI

KAZETARIA ETA IDAZLEA

Azken urteotan memoria historikoa landuz hainbat artikulu eta liburu sinatu ostean, oraingoan bere argazkilari alderdia erakutsi digu komunikatzaile durangarrak, Marokora egindako bidaien esentzia biltzeko.

Asier AIESTARAN

berean doazen argazki batzuekin osatua, diskurtso eta tematika komunarekin. Eta atenporalak dira: duela 200 urte eginak izan zitezkeen, edo atzo ateratakoak», aurreratu digu.

TESTUREKIN JOLASTEN

Erakusketak bi atal dituela esan daiteke. Lehenengoan, sarrera moduan, Gorritiren testu labur bat irakur daiteke, bere bidaietan etxean hartzen duten amazig familiekin duen lotura deskribatuz. Eta familia horietako kideen zuri-beltzeko hamabi erretratu ikus daitezke, tartean Gorritiren bi semeak ere familiako kide beza-la agertzen direla.

«Lehen zatia omenaldi bat da, beraiekin bizitzeko aukera ematen diguten pertsonen. Zubi bat Euskal Herria eta amazig herriaren artean. Berez, emakume horien argazkiak ezingo nituzkeen horrela erakutsi, han oraindik emakumeen argazkiei emotikono bat jartzen dietelako. Orain ari da hori apur bat aldatzen» onartu digu durangarrak.


Bigarren atalean, zati nagusia, paper berezian positibaturiko 20 argazki daude. Argazkien neurria –metroko zabalerakoak– eta argazkiei digitalki erantsitako testura bereziak –ikusten ditugunak argazkiak edo margolanak diren zalantza egiteraino– dira bisitariari lehen kolpean atentzioa ematen dioten bi ezaugarriak.

«Argi neukana zen nik erakusketa tematiko bat egin nahi nuela, zentzu guztietan. Kontzeptu aldetik, diskurtso aldetik, estetika aldetik... Eta estetika horretan testura bat erantsi nahi nion argazkiari, J.M.W. Turnerren paisaiak gogora ekarriz nolabait. Hark bere margolanetan atmosfera

kon gurekin joan zen. 18 urte inguru edukiko zituen garai hartan, oso gaztea zen, baina ikusten zen ‘makina’ bat zela. Handik gutxira hasi zen zortzimilakoak igotzen eta garaiera horretako gailur bat lortu zuen euskal alpinista gazteena bilakatu zen».

«Dena lerrokatu zela esan daiteke: nire garai hartako zaletasunak, herrialdeak eskaintzen zidana, lehen bidaia hura egin genuen 22 pertsonen artean sortu zen giroa... Gogoratzten naiz menditik jaitsi gine-nean neska-lagunari deitu eta esan niola: ‘Hona berriz etorri behar dugu’». Eta baita hitza bete ere.

«Ordutik 12-15 aldiz itzuli naiz Marokora. Abdourtarren etxean geratzen gara, Toubkal mendiaren magalean hain justu ere, eta Merzougan ere beste familia baten etxean hartu ohi gaituzte, desertuan. Eta bizipen horietatik etorri da erakusketa hau, 23 urteren buruan. Ez da Marokora joan, argazkiak atera eta itzuli egin naizela. Urte askoan ondu den erakusketa bat da, norabide



bereziak sortzen zituen, eta hori oso interesgarria iruditzen zitzaidan nire argazkietan. Alde batetik, argazkiei bidaia edo abentura kutsua emateko, eta bestetik, izaera atemporal hori nabarmentzeko», ekin dio Gorritik bere lana azaltzerakoan.

«Horrek argazkiei izaera piktorikoa ematen die. Aurrekoan "El Pais" egunkariko argazki edizioko arduradunak deitu zidan galdetzeko ea filtrorik erabili dudan. Esan nion filtrorik ezetz, argazkigintzan ez zaidalako kontzeptu hori gus-tatzen, gainera; testura bat erabili nuela esan nion, nik aukeratua. Eta galdetu zidan ea adimen artifiziale erabili dudan. Eta horri ere ezetz erantzun nion, justu kontra-koa. Argazkiak zuri-beltzean, bat izan ezik, eta gainetik tes-tura bat jarrita», gaineratu du.

Azkenean, bere zaletasunei erantzuten dien aukeraketa bat. «Niri argazkigintza klasi-koa gustatzen zait, dena bere lekuan dagoen argazkigintza hori. Lehen bidaia interkontinental haietan egiten zena, ni-reak nolabait horretatik ere badaukalako zerbait. Begira dagoenari zuzenean hitz egi-ten dioten argazkiak bilatzen

Ezkerrean, emakumea lore artean, Essaouira atzean ikusten dela. Erakusketa osoan mugikorrarekin ateratako argazki bakarra da. Eskuinean, Bilmoun izaki misteriotsua M'zik herrian, Atlas Garaian. Iban GORRITI

«Abdourtarren etxean geratzen gara, Toubkal mendiaren magalean hain justu ere, eta Merzougan ere beste familia baten etxean hartu ohi gaituzte, desertuan. Eta bizipen horietatik etorri da erakusketa hau, 23 urteren buruan»

ditut. Horrek ez du esan nahi onak edo txarrak direnik, hori oso subjektiboa delako, baina nire argazkiek ez dute aldame-nean azalpen testurik. Erakus-keetan bi testu bakarrik daude: bat Euskal Herriaren eta ama-zig herriaren arteko zubiak ai-patzeko eta bestea Estela Rey filologoak egindako interpre-tazio bat», dio.

INPLIKAZIO OSO PERTSONALA

Musika edo argiztapena beza-lako beste xehetasun batzuk ere zaindu nahi izan ditu, bisi-tariaren esperientzia hobetze aldera. «Bideo bat proiektatu nahi nuen tamaina handian. Toubkal izeneko talde batean jotzen nuen, mendiaren izena hartuz, eta talde horren bideo-klip bat jarri dugu buklean. Zertarako? Ba erakusketa ikus-tera joaten den bisitaria kon-painian sentitzeko. Niri ez zait batere gustatzen museo handi horietan izaten duzun sentsa-zio hori: Telepizzako argi zu-ria, pertsona bat bertan la-nean eta zu han, molestutzen ari bazina bezala. Nik kontra-koa nahi nuen, erakusketa bat non sartu eta gustura sentitu-ko zaren».

«Abesti aukeraketa bat egin nuen, chill out tonu horretan

Afrikako kantu etnikoekin, baina baita euskarazko batzuk sartuta ere, gure bidaietan fur-gonetan entzuten genituenak. Argia ere jaisteko eskatu nuen, argi horiagoa jarritz. Modu ho-rretan, erakusketa bakarrik ikusten ari bazara, argazkien bidez Marokon egotearen sen-tsazioa areagotu nahi nuen. Gauza bakarra falta izan zait: kartel bat ipini nahi nuen esa-nez argazkiak ukitu egin dai-tezkeela. Gustatu egiten zait jendea gerturatu eta argazkia ukitzea, pentsatuz 'zer egin du tipo honek hemen, honek fo-tokopia bat dirudi'», aldarrika-tu du kazetari bizkaitarrak.

Izan ere, erakusketa hone-tan, inplikazio pertsonal han-dia ipini du Gorritik, arrazoi desberdinak medio. Inaugura-zio egunak, adibidez, bere aita-ren heriotzaren bosgarren ur-teurrenarekin bat egin zuen, «serendipia hutsez», bizkaita-rrak nabarmentzen duenez.



Eta aitari omenaldia eginez "Ibn Gorriti" bezala sinatu du erakusketa. «Marokora egin-dako lehen bidaietako batean mugako guardiari pasaporte-a erakutsi eta izena galdetzen zi-dan. Nik Iban esaten nion, bai-na berak 'eta izena?' errepika-tu. Antza denez, arabieraz

'ibn'-k semea esan nahi du eta 'Ibn Gorriti', alegia 'Gorritiren semea' bezala sinatuz omenal-di bat egin nahi izan diot aita zenari», azaldu du.

Zirkulua ixteko, eta erakus-keetan egindako aipamenare-kin batera, otsailaren 21ean Photomuseumean egin zuen bisita gidatuan familia eta la-gunez inguratuta egon zen. «Bisitara etorri ziren 80 per-tsona horiekin konexio bere-zia sortu zen. Gainera, esan zi-datenez, errekor bat da horrelako ekitaldi batean 80 pertsona batzea. Gehiago ere etortzekoak ziren, tartean Ma-rokoko lagun batzuk ere bai, baina azkenean ezin izan zu-ten. Oreretatik etorritako biko-te bat ezagutzeko aukera izan nuen, Muskizetik etorritako beste batzuk ere bai... luxu bat izan zen, oparia. Nire semeak bertan parte hartzea ere bai. "Lagun galduak" abestu ge-nuen, amaieran "Saltzen, sal-tzen" ere bai, letran Zarautz ai-patuz... Oso eskertuta nago», atera zaio barren-barrenetik.

MAROKO, ETENGABEKO ALDAKETAN

Erakusketarako argazkien au-keraketa egitea asko kostatu zaion galdetuta, Gorritik be-rriz dio bere kasua ez dela



agian argazkilari profesional baten berdina. «Ez naiz ni argazki asko ateratzekoa. Ni ez naiz argazki kamera lepotik zintzilik duela ibiltzen. Kamera normalean motxilan eramaten dut, mendiko ohiko motxilan. Badaukat, adibidez, kamera bat hobia etxean, baina normalean ez dut hori eramaten bidaietara. Eta ez da lapurtzeko beldurratik, baizik eta kamera motxilan lasai eraman eta apurtuko ote den beldurrez ez ibiltzeagatik. Nahiago dut kamera normalxeago bat eraman gainean eta lasai ibili, apurtzen bada zer egingo diogu ba. Nahiago dut ueña lasai bizi eta argazkiren bat ateratzeko aukera ikusten badut orduan egin», kontatu digu bere ohiturei buruz.

«Batzuetan egiten dudana da goizeko 06.00etan argazkiak ateratzera irten, ‘turistea’ oraindik hasi gabe dagoenean eta bertako biztanleak beren zereginetan dabiltzanean. Baina gutxitan joaten naiz norabait zehazki argazkiak egitera. Beraz, Marokoko argazki asko dauzkat, baina ez dira milaka», dio.

Azken 20 urteotan herrialdearen bilakaera nola bizi izan duen galdetuta, lehenik eta

behin ohartarazpen bat egin du. «Argi utzi nahi dut nik amazig herriaren Maroko maitetudala, jende askok modu okerrean ‘bereber’ deitzen duen hori. Ez zait batere gustatzen Marokoko Gobernuaren jarrera, egiten dituen ekintzak, erregea... Sahararren alde nago, adibidez».

Behin hori esanda, baieztatu digu aldaketa handiak nabaritu dituela urte hauetan. «Nik ez nuen ezagutu herrialdea 90eko hamarkadan edo lehenago, baina esango nuke 2000. urte hartatik gaur arte aldaketa handiak egon direla. Essaouira leku chic bat bilakatu da, nolabait esateko, oso ‘afrantsesatua’, eta turismoari begira eraldaketa handiak izan ditu. Ez dakit bertako biztanleek nola biziko zuten hori. Argazkietan ikusten diren leku batzuk adibidez jada desagertuta daude. Essaouirako hondartzak bandera urdina dauka, emakume bat alkate izan zuen Marokoko lehen hiria izan zen... Maroko ‘librea’ dela esan liteke, irekiena, gizon-emakume bikoteak kaletik eskua emanda doaz... Maroko oraindik oso itxia da erlijioak duen garrantziagatik, batez ere barnealdean, baina Essaouira des-

Ezkerrean, kaioak
Essaouirako Sqala du Port
inguruan. Eskuinean,
surflari bat Sidi Kaouki
hondartzan txakur basati
arte.

Iban GORRITI

*«Argi neukana zen
nik erakusketa
tematiko bat egin
nahi nuela, zentzu
guztietan.
Kontzeptu aldetik,
diskurtso aldetik,
estetika aldetik... Eta
estetika horretan
testura bat erantsi
nahi nion
argazkiari, J.M.W.
Turnerren paisaiak
gogora ekarriz
nolabait»*

berdina da», aipatu du kostaldeari buruz.

Mendi inguruetan ere aldatetarik izan dira: «Goi Atlasera joan ginen lehen aldietako batean trekking bat egin genuen Tacheddirt-era, eta han argazkiak ateratzen hasi ginenean haurrek harriak botatzen zizkiguten. Gero esan zigutenez, argazkiak ateratzean pertsonen arima lapurtzen zela uste omen zuten. Gaur egun, 23 urte beranduago, herri horretan bakoitzak bere mugikorra dauka eta argazkiak ateratzen ditu lasai-lasai».

Marrakex eta inguruetan ere turismoari lotutako garapena nabarmena omen da –«ez dakit zehazki nondik datorren azken urteotan Marokon sartu den dirutza hori, baina nabaritzen da aberastasun hori»–, baina egunero koan arazoak ez omen dira falta bertako langileentzat.

«Nik oztopo handi bat ikusten dut, eta halaxe esaten diet beraiei ere: turismoarekin lan egiten duten enpresa eta pertsonak azken urteetan gutxienez lau aldiz gelditu behar izan dute beraien jarduna arrazoi desberdinengatik. Lehenik, islamistek emakume bati burua moztu zioten, inoiz

ez zen gertatu, baina une horretan espedizio denak geldiarazi zituen gertakariak; gero pandemia iritsi zen eta lanik gabe geratu ziren; gero Marrakex-en atentatu bat egon zen lehergailu batekin, hori ere ez da batere ohikoa, baina kolpe bat izan zen beraientzat; eta azkenik, aurreko udan izandako lurrikara. Mundua dagoen bezala, ez litzateke arraroa beste gatazkaren bat sortzea, eta hori handicap handia da beraien lanerako», aipatu du.

Eta kontraste horien adibidetzat jarri digu lurrikararen ondorioei aurre egiteko antolatutako diru biltzea. «Diru biltzea bat egin nuen ni joaten naizen herriari - M'zik izena du - eta bertako aterpetxeei laguntzeko. ETBk ere lagundu zuen eta egun gutxi batzuetan 5.000 euro inguru bildu nituen. Baina herrialdea nola dagoen ulertzeko, esango dizut diru kopuru hori bertara bidali nuela eta oraindik ezin izan dutela erabili gobernuak ez dielako baimenik ematen aterpetxe horiek berreraikitzen hasteko. Aldaketa asko bizi dituen herrialdea da, alde batetik, baina egunero koan ziurtasun gutxi eskaintzen duena, bestetik».